



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, uztailaren bostean, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatua zena : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 1a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 1a

4. ERABAKIA: HARGAINETAKO BIDEKO ZATI BATEN BESTELA SAILKATZEA ETA ALIENATZEA (3.5 nomenklatura)

Auzapezak azaldu du, 2021eko ekainaren 1eko erabakia segituz, non Hargainetako Bideko zati baten bestela sailkatzeko eta alienatzeko proposamena egin den, 2022ko maiatzaren 16ko ordenantza bidez izendatu duen Pierre Laffore inkesta komisarioari eskatu diola inkesta publiko baten egitea.

Txosteneko agiri guztien berri ukanik; inkesta denboran bildu adierazpen, ohar eta erreklamazioak eta inkesta-komisarioaren ondorioak irakurririk;

Legeak behartzen dituen izapide guztiak bete direla kontuan hartuz;

Proiektuaren kontrako erreklamaziorik egin ez dela kontuan hartuz;

Inkesta komisarioaren aldeko iritzia kontuan hartuz;

ARRAZOI GUZI HORIENGATIK,

Herri Biltzarrak,

Honakoa ERABAKI DU aho batez:

- Hargainetako Bideko zati baten bestela sailkatzea eta alienatzea,
- Herriko bidearen 640 ca-ko azalerako zati bat GARICOITZ jaun andereei eskura uztea, m² bakoitzeko euro 1en truke, erantsia den planoan ikus daitekeen bezala,
- Herriko bidearen 160 ca-ko azalerako zati bat Pierre TROUNDAY jaunari eskura uztea, m² bakoitzeko 0,15 euroen truke, lur pista bat delako, erantsia den planoan ikus daitekeen bezala,

Auzapezari ESKATU DIO ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guzien egitea, besteak beste herriko bideen planoan eta sailkapen taula eguneratzea, eta horretarako salmenta agiria egitea.

ZEHAZTU DU, notario edo administrazio gastuak eskaera egin duten norbanakoen gain direla.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko uztailaren 5ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/07/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/07/08an.